

METROAN LAN EGIN ALA EZKONDU



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Madril, 1919 urriaren 17a. Hiriko metro sareak (Compañía Metropolitana Alfonso XIII) atek ireki zituen. Telefónicarekin batera, enpresa hura aitzindaria izan zen Espainiako Estatuan emakumeak enplegatzen. Telekomunikazio enpresan telefonista postura mugatzen zen haien lana eta Metroan, aldiz, soilik bulegoetan eta txartelak saltzen aritu zitezkeen. Emakume langileak izatea deigarria, ezohikoa zen garai hartan eta enpresak zera espero zuen lehen komunikatu ofizialean: “Madrilgo publikoak, daukan kulturari esker, (...) emakumezko langileak ohiko kortesiaz tratatuko dituela”.

Baina emakume horiek ezinbesteko baldintza bat bete behar zuten: ezkongabeak izatea. Ezkontzen ziren txartel-saltzaileek derrigorrezko eszedentzia hartu behar zuten. Enpresaren arabera, “etxe eta haurrak zaintzeak berekin dakartzan betebeharrak ez dira bateagarriak Metropolitanoko karguaren jarduerarekin (...), zerbitzuaren zorroztasunak eskatzen dituen konstantzia eta puntualtasuna erabatekoak direla eta”. Horrez gain, publikoki madrildarren “kortesia” goraiatu arren, barne jakinarazpen batean enpresak zioen emakume ezkonduentzat kaltegarria izango zela “publiko masa eskerarekin harreman zuzena izatea,



METRO MADRID

zoritxarrez, jendearen kultura maiz kaskarra izaten delako”, eta ohartarazten zuen modu horretan, gainera, “legez kanpoko harreman debekatuak” bultza zitezkeela.

1930ean txartel-saltzaile bat kale-ratu zuten ezkontzegatik eta erabakia erreklamatu zuen. Ondorioz, enpresa batzordeak neurri bat adostu zuen: ezkontzeagatik lana uztera behartutako emakumeek 250 pezetako ordaina jasoko zuen, metroan gutxienez urtebetez jarduna baldin bazen, eta 500 pezetakoa, bost urtetik gora arituz gero. Hala, emakume ezkonduak bazuten aukera publikoarekin harreman zuzenik ez zeukaten postuetan aritzeko, bulegari edo telefonista gisa. Hala ere, emakumeek soilik egunez lan egin zezaketen,

eta 22:00etatik aurrera gizonek betetzen zituzten txanda guztiak.

XX. mende hasieran halakoak gertatzea ohikoa izanda ere, harrigarria da emakume ezkonduak mugatzen zituen arau hori 1984 arte egon zela indarrean, Espainiako Konstituzio Auzitegiak horrelako derrigorrezko eszedentziak legez kanpokotzat jo zituen arte. Gainera, urte hartan bertan, Madrilgo metroak emakume bat kontratatatu zuen gidari lanetarako.

Baina ez zen hura izan Madrilgo lehen metro-gidaria; lehenago, Gerra Zibilaren garaian, zenbait emakume horretan eta ordurarte haientzat galarazitako beste zenbait lanetan aritu ziren. Zoritxarrez, gerra izan ohi delako emakumei lan munduan sartzeko bultzadarik handiena eman diena. ■



Lotsak asmatu zuen estetoskopioa

1816an René Laennec (1781-1826) mediku bretoiari gaixorik zegoen neska gazte baten bihotz-erritmoa aztertzea egokitu zitzaion. Ordura arte medikuek belarria pazientearen bularrean jarrita egin ohi zuten lan hori, baina Laennec, lotsatuta, onartezintzat jo zuen metodo hura, gaixoaren “adina eta sexua” zirela eta. Orduan, bere koadernoan bil-

du, hodiaren mutur bat gaixoaren bularrean jarri eta bestea belarrira hurbildu zuen. Medikuek berak idatzi zuenez, “Askok harritu eta poztu nintzen, bihotzaren jarduna belarria zuzenean jarrita baino askoz modu garbiagoan antzematen nuela konturatu nintzenean”. Eta horrela, ezustean, estetoskopioa asmatu zuen. ■